

2024ko Programa

Prensa txostena

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA


B

Cristóbal Balenciaga Museoak zenbait erakusketa berrirekin eta ikerketarekiko eta kontserbazioarekiko konpromiso berrituarekin zabalduko ditu bere atepak.

Otsailean Museoa itxi zen, udaberrian hasiko den denboraldi berrirako prestatzeko eta, orain, Cristóbal Balenciaga Museoak, erakusketa- eta kultura-programa gauzatzeaz gain, Cristóbal Balenciagarekin lotutako lanen eta balioen ikerketarekin, prestakuntzarekin eta hedapenarekin duen konpromisoa berritu nahi du, baliabide eta jarduera berri batzuen bidez.

Cristóbal Balenciaga Museoko biltegiak





Programa

«2023an proba pilotu bat egin ondoren, jendeak museoa bisitatzeko duen modua berriz diseinatu da, ibilbideak sinplifikatu eta bisitariarentzat intuitiboagoak, arinagoak, irisgarriagoak eta egokiagoak bihurtze aldera. Aldi berean, argiago geratu da zer lotura dagoen eduki iraunkorren eta aldi baterakoaren artean, eta gure bildumarekin zuzenean lotutako edukien eta beste eduki osagarri batzuen artean; hala, errazago ulertzen da eremuaren antolaketa orokorra.»

Miren Vives / Cristóbal Balenciaga Museoko zuzendaria

- | | |
|-------------------------|---|
| Areto biografikoa | Bisita areto biografiko iraunkor berrian hasten da, Cristóbal Balenciagaren enpresa-, bizitza- eta sormen-ibilbidea agerian jartzeko eta bisitariak goi-mailako jantzigintzako maisuaren testuinguru historiko eta geografikoan kokatzeko. Aipatutako aretoan, jostunarekin hasi (1895) eta museoaren irekierarekin (2011) amaitzen den kronologian sortutako zenbait objektu, argazki, agiri, jantzi eta artelan daude ikusgai. |
| Balenciaga. Izaera | Puntu horretatik abiatuta, ondoz ondoko lau aretoetan <i>Balenciaga. Izaera</i> zaintza-seriearen hirugarren eta azken erakusketa ikus daiteke. Horretan, museoeko bilduman «Zer da Balenciaga bat?» galderari erantzuten dioten 90 lan esanguratsu aurkezten dira. Kanpoan zein barruan Balenciagaren obraren bereizgarri diren alderdiak nabarmentzen dira. |
| Chillida / Balenciaga | Martxoaren 22tik aurrera, seigarren aretoa zabalduko da, <i>Chillida / Balenciaga. Tolestean forma</i> aldi baterako erakusketarekin, zeinak bi sortzaileen berrogei obratik gora bilduko dituen. Chillidaren Mendeurrenaren testuinguruan antolatutako erakusketak Eduardo Chillida Fundazioaren eta Pilar Belzunceren laguntza izan du, baita beste zenbait bilduma pribaturena ere. Hala, Museoak bat egiten du Eduardo Chillidaren jaiotzaren mendeurrenaren ospakizunarekin. Hain zuzen, hura izan zen <i>Balenciagaren omenez</i> eskulturaren egilea, eta gaur egungo museoaren oinarriko Fundazioaren patronatuko lehen kideetako bat izan zen. |
| Goi-mailako lurrigintza | Azkenik, aipatutako erakusketez gain, maiatzean, goi-mailako lurrigintzari buruzko aldi baterako erakusketa-proposamen bat gauzatuko da, zeinak agerian jarriko baitu zer eginkizun izan zuten Balenciaga etxeak eta garai hartako beste <i>maison</i> batzuek hasiberria zen negozio-lerro horren garapenean. Erakusketak bi bilduma pribatu garrantzitsu ditu oinarri, eta Osmothèque frantsesaren laguntza du. Aladamar Jauregiko aldi baterako hiru aretoetan aurkeztuko da, eta halaxe osatuko da bisitaren ibilbidea. |

Jarduerak

Erakusketen programazioa osatze aldera, Museoaren hurbileko komunitatearekin konektatzeko eta sormenaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren balioak partekatzeko kultura-programa bat prestatu da.

Halaber, moda jasangarriaren inguruko zenbait proposamen egin dira —eskola-programa, familiako jardueren programa, moda jasangarriaren eta kontsumo arduratsuaren inguruko kontzientziazioa, eta publiko guztientzako irisgarriak diren jardueren aldeko apustua— eta urtean zehar gauzatuko dira.

Balenciaga. Izaera erakusketa



Dokumentazio-zentro berria

«Barneko langileek eta kanpoko ikertzaileek erabiltzeko gune irisgarri eta hornitu bat izatea oso urrats garrantzitsua da museoak sareko lanean eta nazioarteko lankidetzan aurrera egiteko.»

Miren Vives / Cristóbal Balenciaga Museoeko zuzendaria

Museoak ikerketarako gune bat zabaldu du, dokumentazio-zentro berria. Horri esker, ikerketa- eta sorkuntza-ildo propioak eta kanpoko eragileekin lankidetzan garatutakoak sendotu eta nazioarteko posizionamendua eta erreferentzialtasuna sustatuko dira.

Aldamar jauregiaren hirugarren solairuan dago, Museo ireki aurretik Cristóbal Balenciaga Fundazioaren lehen bulegoak zeuden tokian. Orain, zaharberritu egin dute dokumentazio-zentro berria han jartzeko, Museoaren inbertsio-planean lehentasunezko gaia baitzen, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak finantzatzen lagundu du.

2023an, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailak, Cristóbal Balenciaga Museoaren eraikin eta proiektuetarako aparteko inbertsio-partida bat eskaini zuen, besteak beste, biltegiak handitzeko, kontserbazio-baldintzak hobetzeko eta areto biografikoa eta ikerketarako gune berri hori egiteko.

Dokumentazio -zentro berria



Zentroan liburutegi bat eta ikerketa-gela bat daude, eta horretan gordeko dira Casa Torres Artxibo Historikoa (Getariako Udala), zirriborroen Riva funtsa (Euskadiko Artxibo Historikoa), erreplika zehatzen bildumak, patrioiak eta Museoaren beraren study collection delakoaren beste erreferentzia batzuk, bai eta 2018tik sortu diren baliabide digitalen bildumak ere

Liburutegiko funtsak modaren eta jantzien historiarekin lotutako zenbait espezialitatetan daude sailkatuta, baita beste gai zehatzago batzuetan ere: moda-sortzaileak, modari buruzko museoak eta erakusketak, ehunen kontserbazioa, moda-diseinua, ehun motak eta modaren negozioa, besteak beste. Halaber, Espainiako, Frantziako, Ingalaterrako eta Italiako moda-aldizkari historikoak gorde dira, Givenchy eta Esteban Funtsetatik eratorriak, besteak beste.

Era berean, museoaren argazki (1.500 erreferentzia), dokumentu (500 erreferentzia) eta zirriborroen (175 erreferentzia) artxiboak kontsultatu ahal izango dira dokumentazio-zentroan; gainera, 2023an Euskadiko Artxibo Historikoa erositako Riva funtseko 8.000 erreferentzia baino gehiago eta Getariako Udalaren Casa-Torres Artxibo Historikoa gordeko dira bertan.

Halaber, erreplika zehatzen bildumak, paperezko patrioiak eta museoaren beraren study collection motako beste erreferentzia batzuk, ehunen bilduma eta 2018tik sortu diren baliabide digitalen bilduma kontsultatu ahal izango dira. Multzoak, guztira, 14.000 erreferentzia baino gehiago izango ditu.

Etorkizunean gune hori zabaltzeak aukera emango du zenbait baliabide berri izateko, esaterako, materioteka bat eta datu-base espezializatuetako harpidetzak; era berean, berezko jarduera-programa bat sortu ahal izango da, zeinak barne hartuko baititu egonaldiak, topaketak eta aldizkako argitalpenak, bai eta urritik aurrera hasiko den irekiera-egutegia ere.

Horrez gain, museoak dituen dokumentu-funtsetarako sarbidea indartuko duen gune digitala lantzen ari dira, gaur egun.

Cristóbal Balenciaga Museoko biltegiak



Ikerketa

Ikerketako, sorkuntzako eta teknifikazioko programa

Dokumentazio-zentroaren gune eta baliabide berrietan oinarrituta, indartu egingo dira gaur egungo ikerketa-, sorkuntza- eta teknifikazio-programak. Horien artean, aipatzekoak dira *Transmissions* programa, munduko moda-eskola ospetsuenetako hamaseirekin lankidetzan egina; ondare immaterialari buruzko «Las manos que cosen» ikerketa-lerroa, zeinak tailerretako langileen testigantzak, dokumentazioa eta argazkiak eta goi-mailako jantzigintzaren lanbidearen ezagutza biltzen baititu; eta goi-mailako jantzigintzako tekniketari espezializatutako prestakuntza-proposamenak, Balenciagaren ondare teknikoa transmititzeko.

Cristóbal Balenciagari buruzko Nazioarteko II. Biltzarra

Museoak, Cristóbal Balenciagari eta haren lanari buruzko ikerketa sustatzeko, helburu nagusi duen aldetik, jostunari buruzko Nazioarteko Biltzarraren bigarren edizioa antolatu du, eta 2025eko urriaren 1etik 3ra izango da, Getariako Cristóbal Balenciaga Museoa.

Nazioarteko biltzar akademiko horretan ikusgai jarri nahi dira jostunaren eta haren ondarearen alderdi guztiei buruzko kalitatezko lan eta ikerketa-proposamen berritzaileak —arlotan guztietakoak: pertsonala, enpresakoa, sormenekoa, teknikoa, etab.—, bai eta Balenciagaren inguruko askotariko testuinguru biografiko, kultural eta profesionalak aztertuko dituzten ikerketak ere.

Jostunaren garrantziatik, ongi etorriak dira modaren historiaren eremutik zein beste ikasketa-esparru batzuetatik datozen proposamenak, barne hartuta arlo ekonomikoa, legala, filosofikoa eta arteena, zentzu zabalean. Cristóbal Balenciagaren bizitza edo haren ondarea jorratzea da betekizuna.

Biltzarraren edizio berri honetan, 2020ko lehenengo biltzarrean egindako lorpenak finkatu eta hobetu nahi dira. Hain zuzen, aurrekoan, Cristóbal Balenciagari buruzko 13 ikerketa berritzaile aurkeztu ziren, mundu osoko erakunde akademikoek eta ikerlariek bidalitako 40 proposamen baino gehiagoren artean aukeratu ondoren.



Bilduma

Museoaren ondareari dagokionez, bilduma handitu eta dibertsifikatu egin da inauguratu zutenetik; hain zuzen ere, 5.100 erreferentzia ditu inbentariatuta gaur egun. Horien erdia, gutxi gorabehera, Parisko eta Espainiako Balenciaga etxeek sortutako jantziek osatzen dute, barne hartuta bitxi eta osagarrien bildumak.

Urte hauetan, ehungintzako bildumak ugaritu dira; gainera, nabarmentzekoa da dokumentuen, argazkien eta objektuen beste bildumen hazkundera ere.

Horregatik, Museoko biltegiak indartu dira, hala partikularrek nola erakundeek museoan gordetzen dituzten iraupen luzeko gordailuak artxibatzeke gune berri bat irekita.

«Gune berri honen bidez, gordailu eta dohaintza gehiago hartzeko dugun gaitasuna handitu nahi dugu, gure bildumak mundu mailako erreferentzia izaten jarrai dezaten. Oso pozik gaude izugarri garrantzitsua den obra bat eskuratu dugulako Gipuzkoako ondarerako, halakoxea baita 1955eko gaueko tunika brodatua, bai eta Balenciaga Etxean eginak eta Virgilia Mendizabalenak izan ziren jantzien bilduma ere; hala, museoko bildumen irismena indartu dugu, denborari eta formari dagokienez.»


Miren Vives / Cristóbal Balenciaga Museoko zuzendaria

Besteak beste, aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzak 2013an gordailututako bilduma garrantzitsua, zeinak 82 erreferentzia baititu, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren bilduma hasiberri bat ere, zeinak 1940ko eta 1950eko hamarkadetako 15 lan baititu.

Cristóbal Balenciaga Museoarentzat funtsezkoa da Cristóbal Balenciagarekin lotutako ondarea kontserbatzea, hala bildumetakoa bada nola, beren titulartasuna galdu gabe, ondare hori zaindu, ikertu eta zabaltzeko museoangan konfiantza izan duten pertsona edo erakundeetatik badator.




2024ko aurrekontua




Cristóbal Balenciaga Fundazioak 2024rako onartutako gastuen aurrekontua 2.200.000 eurokoa da (amortizazioak kontuan hartu gabe). Gastu horren % 41 museoaren jarduerak sortutako diru-sarrerekin finantzatzen da, eta gainerako % 59a, berriz, patronatua osatzen duten erakunde publikoen ekarpenekin (Eusko Jaurlaritzak % 22 jartzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiak % 21 eta Kultura Ministerioak % 16).

Museoak 66.000 bisitari eta erabiltzaile baino gehiago izan ditu Getarian; hau da, lehengo urtean baino % 5 gehiago izan dira, eta pandemia aurreko mailak gainditu ditu. Hala, Museora egindako bisiten hazkunde positiboa egonkortu egin da.



Bisitarien % 47 Estatutik bertatik datoz. Horietatik % 12,45 Euskaditik, eta % 34,57 kanpotik; zehazki, Madrilek eta Kataluniak ekartzen dituzte bisitari gehien.



Nazioarteko publikoaren presentzia ere argi eta garbi sendotu da, eta guztizkoaren % 53 da. Atzerriko bisitarien artean, Frantziatik datozenak nabarmentzen dira (nazioarteko publikoaren % 41 frantsesa da); beste batzuk Estatu Batuetatik, Alemaniatik, Britainia Handitik, Italiatik eta Belgikatik etortzen dira.

Cristóbal Balenciaga Museoa

Cristóbal Balenciaga Museoa 2011. urteko ekainaren 7an zabaldu zituen ateak. Jostunaren jaioterrian dago kokatua, Cristóbal Balenciagaren lehenengo prestakuntza-urteen eta heldutasun profesionalaren oroimenez eta modaren munduari egindako ekarpenak ulertzeko helburuarekin.

Balenciagaren bizitza eta lana, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutzera emateko helburuarekin, bilduma aparta du museoak. Oso bilduma zabala da —5.100 pieza baino gehiago inguru ditu, baina etengabe ari da handitzen, gordailuei eta dohaintzei esker—, eta hedadura formal eta kronologiko handia du —jostunaren modelo zaharrenak daude, esaterako—; bi ezaugarri horiei esker, gaur egun dagoen bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena da.

Bildumaren beste balio ezohiko bat piezen jatorria da; izan ere, Balenciagaren nazioarteko bezero handiak XX. mendeko gizarteko pertsonaia aipagarriak izan ziren: Mona Von Bismarck, Rachel L. Mellon, Patricia López Wilshaw, Barbara Hutton, Lilian Baels, Grace Kelly edota Madame Bricard, besteak beste, Artxiboetan dauden modeloak jantzi zituzten.



Informazioa

Zuriñe Abasolo Izarra
Komunikazio arduraduna

zurine.abasolo@fbalenciaga.com

T +34 943 004 777

M +34 647 410 775

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

